

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 420.000 euro bideratuko ditu enplegurako laguntzak kudeatzeko sistema informatiko berri batera

Inbertsio horiek Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansare teknologikoki modernizatzeko prozesuaren barruan sartzen dira; 2017rako aurrekontua 505.000 eurokoa da guztira

Asteazkena, 2017.eko martxoak 1

Nafarroako Gobernuak gaurko lansaioan baimendu du bi urtetan 420.000 euroko inbertsioa egitea, Nafar Lansareak (Nafarroako Enplegu Zerbitzua) egiten dituen enplegurako laguntzen deialdiak kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko sistema informatiko berria gara dezan.

Maria Solana Gobernuko bozeramaileak Gobernuaren lansaioaren ondorengo prentsaurrekoan azaldu duen bezala, inbertsio hori Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko Nafar Lansare zerbitzuaren modernizazio teknologikoko prozesuaren barruan sartzen da; zerbitzu horren informatikara bideratutako aurrekontua nabarmen igo da 2015etik (105.000 euro) 2017ra (505.000 euro).

Faseka ezarriko da tresna berri hori, eta 2019ko lehenengo seihilekoan egongo da erabat ezarrita. Gaur egun, hainbat aplikazio eta programaren bitartez egiten da laguntza horien kudeaketa informatikoa: Access, Word edo Excel. Zatiketa horrek zaildu egiten du laguntzen jarraipena egitea edo laguntza horiei buruzko informazioa eskuratzea.

Nafar Lansare zerbitzuak uste du jarduketak edo programak eraginkorrak izateko eta horien inpaktua ezagutzeko, ezinbestekoa dela emaitzak kuantitatiboki neurtzea eta jarraipen bat egitea; eta horretarako ezinbestekoa da laguntza guztien kudeaketa homogenea egitea ahalbidetuko duen sistema bat, informazioa herritarren eta organismoaren beraren eskura jarriko duena, kudeaketa gardena egin ahal izan dadin.

Bulkada teknologiko horrek eskatzen dituen beharrak definitzeko, Nafar Lansarek Informatikako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin diseinatu du tresna hori; halaber, inguruko erkidegoetako enplegu zerbitzuekin hainbat batzar egin ditu –hala nola Euskadi, Aragoi eta Errioxa–, informazioa elkartrukatzeko eta jardunbide egokiak partekatuzeko



NEZ-NL organismoak enplegurako laguntzak kudeatzeko sistema informatiko berria garatuko du.

helburuz.

Lan-orientazioa

Enpleguaren arloko laguntzak kudeatzeko sisteman hobekuntzak egiteaz gain, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak beste 240.000 euroko inbertsioa egingo du trebakuntzako ekintzen jarraipenarekin lotutako hobekuntzetan eta "Orientasare" aplikazio berriaren garapenean.

Azken tresna horrek ahalbidetuko du pertsona bakoitzarekin lan-orientazioaren arloan egindako ekintzak ezagutzea, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzurako zerbitzu hori eskaintzen duten erakunde guztien esku jarriko da. Aplikazioak bermatzen duen "trazabilitateari" Esker, orientazioko ekintzak arrazionalizatuko dira, eta pertsona berari zerbitzu bikoiztuak ematea saihestuko da.

Laguntzak eta diru-laguntzak

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Nafar Lansarek, 20 bat laguntza eta diru-laguntza mota kudeatzen ditu enpleguaren arloan; besteak beste, enplegu autonomoa sustatzeko laguntzak, kontrataziorako pizgarriak, Enplegu Zentro Bereziei eta Gizarteratzeko Enpresei ematen zaizkien laguntzak, enpresa arruntek ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzekeo laguntzak, ekonomia soziala sustatzeko laguntzak, etab.

25,56 milioi euroko zenbatekoa guztira (2016an, 21 milioi euro inguru). 2017an, 54,4 milioi euroko aurrekontua du organismo autonomoak, 2016an baino % 17 gehiago; 46,53 milioi euroko aurrekontua izan baitzuen orduan.